



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 20a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00061. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten baitu. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-24/MOC-00078. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-24/MOC-00082. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nasuvinsa premiatzen baitira Alokairu Poltsa programa landa-eremuen eta despopulazio-arriskuan dauden udalen inguruabarretara egokitu dezaten. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-24/MOC-00088. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegua indartu dezan funtzio publikora sartzeko laguntza emanda, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeko arrakastako tresna baita. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-24/MOC-00089. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu frankismoaren krimenak gizateriaren aurkako krimenak direla, babestu egiten baitu Germán Rodríguezen senideek aurkeztutako kereila eta eskuin muturreko biktimen errekonozimenduarekin jarraitzera premiatzen baitu. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-24/MOC-00090. Erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-24/MOC-00073. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzendarian jasotzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra izateko erabil dezan Refena. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (5. or.).
- 11-24/MOC-00081. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomia dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (6. or.).
- 11-24/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako farmaziabulegoen ordutegiak eta guardiak mantentzen. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- 11-24/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Eskola-jazarpenaren Prebentziorako Plan Nazionala taxutu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00061. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten baitu

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balio errepublika-

noekiko konpromiso irmoa adierazten baitu. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten du”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00078. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ama-esneko banku bat sor dezan, eta behar diren urratsak egin ditzan erabil-tzaile eta emaile potentzialak zerbitzu horren berri izan dezaten”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00082. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nasuvinsa premiatzen baitira Alokairu Poltsa programa landa-eremuen eta despopulazio-arriskuan dauden udalen inguruabarretara egokitu dezaten

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nasuvinsa premiatzen baitira Alokairu Poltsa programa landa-eremuen eta despopulazio-arriskuan dauden udalen inguruabarretara egokitu dezaten. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua eta Nasuvinsa-Nafarroako Gobernuak etxebizitza eta hirigintzako sozietate publikoa premiatzen ditu eginkizun proaktiboa izan dezaten Alokairu Poltsaren sustapenean, garapen periodikoko komunikazio-plan bat taxututa, Alokairu Poltsako programaren publizitatea eta informazioa modu erregularrean sustatzeko Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premiatzen du Alokairu Poltsaren sustapenean lankidetzan proaktiboan jardun dezan etxebizitzak eta eraikinak zaharberitzeko bulegoekin, lurralde osoan ezarriko baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak Nasuvinsa premiatzen du Alokairu Poltsan onar daitezen

despopulazio-arriskuren bat duten udalerrietako landa-etxebizitza tradizionalak eta baserriak, baita 4 logela baino gehiago eta 110 metro koadro baino gehiago dauzkatenak ere.

4. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premiatzen du jarduketa-ildo gisa har dezan despopulazio-arriskuren bat duten udalerrietan abandonatutako higiezin leheneratzea, zaharberitu ondoren Alokairu Poltsa programan sartzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berariazko dirulaguntza-ildoak aintzat har ditzan, despopulazio-arriskuren bat duten udalerrietan alokairua bultzatzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du despopulatzearen aurka borrokatzeko foru-lege proiektu bat presta dezan eta bertan zeharkakotasunez integra ditzan landaguneei despopulatzeko geldiarazteko neurriak, arreta berezia jarrita etxebizitzaren arloko politika guztiak berriz diseinatzean, aipatu foru-lege horren helburuekin bat etor daitezen”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00088. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegua indartu dezan funtzio publikora sartzeko laguntza emanda, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeko arrakastako tresna baita

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegua indartu dezan funtzio publikora sartzeko laguntza emanda, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeko arrakastako tresna baita. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Enplegua indartu dezan funtzio publikora sartzeko laguntza emanda, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeko arrakastako tresna baita.

– Laneko ikuskaritzak zaindu dezan desgaitasuna duten pertsonen kontratazioaren % 2ko kuota betetzen dela, 50 langile baino gehiagoko enpresa arruntek bete beharrekoa”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00089. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu frankismoaren krimenak gizateriaren aurkako krimenak direla, babestu egiten baitu Germán Rodríguez senideek aurkeztutako kereila eta eskuin muturreko biktimen errekonozimendua-ekin jarraitzera premiatzen baitu

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu frankismoaren krimenak gizateriaren aurkako krimenak direla, babestu egiten baitu Germán Rodríguez senideek aurkeztutako kereila eta eskuin muturreko biktimen errekonozimendua-ekin jarraitzera premiatzen baitu. Hona testua:

“1. Kontuan izanda Giza Eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluan eta Memoria Demokratikoaren urriaren 19ko 20/2022 Legearen 2. artikuluan ezarritakoa, Nafarroako Parlamentu honek deklaratu du frankismoak diktaduraren eta trantsizioaren garaietan zehar egindako krimenak

gizateriaren aurkakotzat jo behar direla ondorio guztietarako.

2. Nafarroako Parlamentu honek errepikatzen du babesa ematen diela 1978ko sanferminetan poliziak tiroz hildako Germán Rodríguez Saizen senideek jarritako kereilari, “Sanfermines 78-gogoan!” elkarteari eta jai horietan izandako gertakari izugarrien ondorioz larriki zauritutako beste hainbati, azken 46 urteotan erreklamatu den justizia behingoz erreala izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu den 16/2019 Legearen bidez jadanik hasitako zereginean jarrai dezan, eskuin muturreko taldeen nahiz funtzionario publikoen ekintzen biktimen errekonozimendua eta erreparazioa lortzeko”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00090. Erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du analisi bat egin dezan, tasa turistiko bat ezartzeko xedez, turismo-garapenaren ardatz gisa hartuko dituen udal-ikuspegia, jasangarritasuna eta ondarearen kontserbazioa”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00073. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzendarian jasotzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra izateko erabil dezan Refena

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2024ko ekainaren 12an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzendarian jasotzen den erabilera anitzeko kirolgune iraunkorra izateko erabil dezan Refena. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak departamentua premiatzen du txosten bat egin dezan, zeinean aztertuko baita zer kirol izanen liratekeen bideragarrienak Refenaren parte batean ezartzeko, bai eta bideragarritasun ekonomikoko azterlan bat ere, zeinean jasoko baita zer gastu egin beharko litzatekeen kirolgune hori irekitzeko, mantentzeko, egokitzeko eta giza baliabidez hornitzeko”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00081. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoa dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2024ko ekainaren 12an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoa dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du Mendebaldeko Sahara nazioarteko zuzenbidearen mende dagoen lurralde ez-autonomo bat dela, sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan, eta haren okupazio ilegala amai dadin eta Saharako herriak autodeterminazio eskubidea balia dezan exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak erreferentziazkotzat jotzen du Auzitegi Nazionalaren autoa, zeinaren bidez Espainia *de iure* Mendebaldeko Sahararen “potentzia administratiboa” dela adierazten baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak Marokoko Erresumari exigitzen dio saharar preso politiko eta kontzientziakoak berehala aska ditzan, eta giza eskubideen urraketak amai daitezzen berak kontrolatzen dituen espetxeetan, presoan osotasun fisiko eta psikikoa bermatuz. Halaber, familiei elkartasuna helaraztea.

4. Nafarroako Parlamentuak bere estimua eta elkartasuna helarazten die Gdim Izik-eko presoari, beren kondenak prozesu ilegal eta bermerik gabeko batean jaso baitzituzten, eta berehala aska ditzaten exijitzen du, eta familiekin bat egiten du justiziaren eta askatasunaren alde daramaten borrokan.

5. Nafarroako Parlamentuak berriro salatzen du Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan natur baliabideen espoliazioa egitea, epaiak epai, eta zonaldean ari diren enpresei exijitzen die nazioarteko zuzenbidea eta saharar populazioaren eskubideak errespetatu ditzatela. Interesdunak premiatzen ditu (enpresak eta herrialdeak) negoziazioak abiaraz ditzaten Saharako Herriaren ordezkari legitimoekin (Fronte Polisarioa).

6. Nafarroako Parlamentuak dio ezen, Mendebaldeko Saharak bizi duen egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dauzkan funtzioak eta egitekoak areagotu behar dituela. Hor-taz, Nazio Batuak premiatzen ditu Misionari ahalmena eman diezaion sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko lurralde okupatuetan.

7. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasunari exijitzen dio Marokoko Erresumarekiko Lehetasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideei buruzko klausula baliaraz dezan.

8. Nafarroako Parlamentuak indartu egin nahi du Emakume Sahararren Batasun Nazionalarekiko lankidetzara, funtsezko eginkizuna baitaukate, erabakigarria, errefuxiatuen kanpalekuetan. Halaber, giza eskubideen urraketa biktimen ikusezintasun-egoeraz ohartarazi nahi du. Berezik, lurralde okupatuetan desagertutako emakumez.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu-erakunde publikoak premiatzen ditu laguntza solidario eta humanitarioa areagotzen jarrai dezaten, hala Tindufeko kanpalekuetako errefuxiatuei nola lurralde okupatuetako sahararrei.

10. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari gaztigatzen dio jarrera irmo eta esplizitua hartu beharra duela Marokoko Erresumako Gobernuak behin eta berriro egindako saiakeren aitzinean, zeinen bidez Kanarietako uretaraino hedatu nahi baitu bere eskumen-esparrua, eskualdean arazo gehiago eta egonkortasun eza ekar ditzakeen interes espantsionista argia erakutsiz.

11. Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuak premiatzen ditu luzamendutan ibili gabe susta dezaten konponbide justu eta behin betikoa Mendebaldeko Sahararen gatazkari dagokionez; hau da, Saharako herriaren autodeterminazio eskubidea praktikan jartzea erreferendum bat eginez. Eta NBERen Genevako Giza Eskubideen Kontseilua premiatzen du giza eskubideen errelatore bat izenda dezan Mendebaldeko Saharako.

12. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du aurrerabidea egitera Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkari estatus diplomatikoa emateari dagokionez, Saharako herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik, NBEk onartzen duen

legez. Eta aurrerabidea egitera Saharako Arabiar Errepublikaren demokratikoaren aldarrikapenean.

13. Nafarroako Parlamentuak hedabideak premiatzen ditu gizarteak ematen dion garrantzi bera eman diezaioten Mendebaldeko Saharako gatazkari. Eta Saharako herriaren kausarekiko pertsona solidarioei dei egiten die Mendebaldeko Sahararen egoeraren berri eman dezaten eta sala dezaten sare sozialen bitartez.

14. Nafarroako Parlamentuak arlo unibertsitario, judizial eta politiko-administratiboak premiatzen ditu, lanean jarrai dezaten argitze aldera Mendebaldeko Sahararen gertatzen diren giza-eskubideen aurkako jarduketak.

15. Nafarroako Parlamentuak bereziki premia-tzen du Cervantes Institutua lotura kulturalak eta gaztelaniaren hedapena indartu ditzan, Mendebaldeko Saharako bigarren hizkuntza baita, errefuxiatuen kanpalekuetan presentzia edukiz.

16. Nafarroako Parlamentuak esker ona adierazten die Saharako herriarekiko adiskidetasunak elkartuta egunero-egunero lan egiten duten elkar-

teei, federazioei nahiz talde solidario eta sozialei, herrialde anaia etorkizunean aske izateko helburu hutsez. Halatan, goresgarria iruditzen zaio Juristen Nazioarteko Elkartearen lana.

17. Nafarroako Parlamentuak hurrei harrera egiteko "Oporrak bakean" programaren garrantzi handia balioesten du, Saharako eta Nafarroako familien arteko maitasun- eta hurbiltasun-harremnaren eta elkartasunaren erakusgarri behinena baita.

18. Mendebaldeko Saharari dagokionez izan duen jarrera tradizionalera itzul dadin exijitzen dio Espainiako Gobernuari, Nazio Batuen ebazpenekin bat; izan ere, Espainiako gobernuko lehendakariak, Marokoko Erregeari 2022ko martxoan igorritako gutunaren bidez, jarrera hori aldebakartasunez aldatu zuen, zuzenbide osoko estatu demokratiko orok bete beharreko parte-hartze prozedurak bete gabe aldatu ere".

Iruñean, 2024ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako farmazia-bulegoen ordutegiak eta guardiak mantentzen ditzan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 13an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako farmazia-bulegoen

ordutegiak eta guardiak mantentzen ditzan. Mozioa 2024ko ekainaren 11ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00085. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Eskola-jazarpenaren Prebentziorako Plan Nazionala taxutu dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 13an egindako bilkuran, ezetsi du María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Eskola-jazarpenaren Prebentziorako Plan

Nazionala taxutu dezan. Mozioa 2024ko ekainaren 11ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias